

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1991ko Ekainak 20, 102. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



Aupa San Juanak!

R. Mendi



Etxeko ekipamendu osoa.

a,eme.. interiores

Garibai 9, Tfnoa: 79 15 03 ARRASATE

DUO DISEÑO



- **OBRAK**
- **BARRUAK**
- **BULEGO-ALTZARIAK**
- **PROIEKTUAK**
- **OSAGARRIAK**

**Iturriotz 21, Tfnoa: 79 28 86
ARRASATE**

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.
Tfnua: 77 05 65

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Joxe Aranzabal

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria. Arantzazu Loidi

Publizitatea eta harpidetzak:

Josune Biteri
Tfnua: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak:

Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karme Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanca Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalaitaikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Txipi Ormaetxea, Arantxa Ozaeta.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88


ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.



Arrasatearrok!

"Aurten ere San Juan Bautista..."

Suaren argiak, gauaren iluna ezabatuko du mugarik gabeko lilura hedatuz, non hasten den jakin gabe, inon amaitzen ez den borobilean dantza eginez.

Urrundik gatoz eta aurrera goaz.

Etorkizuna eskuratzen dihardugu jai eta aste, gau eta egun, ezer eta inor ahaztu gabe.

Agur bero bat denoi eta bereziki aurtengo San Juan suaren inguruan ezin egongo diren preso eta errefuxiatu politikoei.

Atsegin dakizuela egitaraua, atseginago jaiak. Ondo passau.

Alkatea.

FOTO

imagen

ARGAZKI

Zerkaosteta 5. Tfnua: 79 66 87 Arrasate

ARRIARAN

Ondo pasau

Otalora 29, Tfnua: 77 05 61 ARRASATE

Azkenean Txiron Alkate

Hamabiak hamar gutxitan HBko zinegotzi eta alderdikide zenbait udaletxeko azken solairuan zeuden, urduri, plenoa noiz hasiko zain. Xabier Lasaga hurbildu eta. Txispasek, ezin aguantaturik, "zer, Xabier, bajak ezer?". Lasaga ere urduri: "Etxak ezer. Hamar minutu hauetan goitik ezpajuek deitzen, hementxe erabakiko jok".

Inork ez bide zuen telefonoz deitu. Hamabiak eta hamarrean, zinegotziak alkategaien izenak betetzera zihozazenean, EA-Jko bik ez zuten jeltxide eta sozialisten artean sinatutako ituna errespetatu. Nekane Iglesiasi bi botu falta izan zitzaizkion Arrasateko lehen Alkatesa izateko. Beraz, eta zerrendarik botatue-na izan arren, pronostiko ia guztien kontra, Xabier Zubizarreta Txiron, berriro Alkate.

Bozketa	
Zuriz	1
A. Orobengoa	1
Nekane Iglesias	9
J.M. Loiti	1
P. M. Ruiz de Azua	3
X. Zubizarreta	6

tzen zuen bakoitzean bateren batek, behin eta berriz, "Loli!" oihukatzen zuen atzetik, Alkatesagaiaren erdalduntasuna gogoraerazi nahian. Azkenean isiltasuna. Botuak irakurri eta... "Alkatea

Xabier Zubizarreta da". Zoramena. Txaloak, iufak,

aupak... Alkate berriak berak ia ez zuen sinesten.

Haize txarrak astean zehar

Aurreko astelehenetik EAJ eta PSOEren arteko itunaren berri zabaltzen joan zenetik, Arrasateko Alkatetza sozialistei zegokiela zirudien. Horrek susmo txarrak zabaldu zituen herrian zehar, bertako euskaldunen artean batipat.

"Akabo euskerie herri hone-tan, erdaraz ein bieko juau hemendik aurrera sozialis-tak jartzen badituk", zioen Musakolako jubilatut batek. ATB eta Arrasate Press erderaz hasiko zirela edo bes-tela betiko itxi, etab. Kanpotarren kontrako giro eta iradokizunak hasi ziren entzuten: "Oin zer, kastella-no horiek gure jaixak kendu eta Rocio hori ipiniko jos-kuek, ala?". Rocioko erromeriaren atzean PSOEren eskua ikusten zu-ten batzuk. "PNVkoek oso zail daukate" zioen zinego-tzi izandako batek, "ze aur-pegirekin joango dira kalera botua sozialista bati eman eta gero?".


"Txiron Alkate?"

Txanponaren beste aldea sozialistena zen. Serio gelditu ziren, haserre. Ge-hienak berehala hasi ziren pleno aretotik irteten. Baka-rrik politikoak gelditu ziren. Jesus Egiguren harrituta eta haserre. Ba omen zuten sus-moa gerta zitekeenaz. Akaso neurriak hartuko zituzten Donostian edo Diputazioan.

Ikusmin handia

Pleno aretoa bete egin zen, era guztietako jendez. Inoiz baino botue-maile sozialista gehiago ze-goen han. Baita abertzaleak ere. Denak serio, zer gerta-tuko. Egon zen hantxe bertan garagardo bat jokatu zuenik.

Idazkariak paperen kon-taketari ekin zionean, tentsioa ikaragarria zen. Denak isilik. "Nekane Iglesias" irakur-



Juan Jose Zabarte EAko zinegotzi ohia Alkate berria zorientzen.

Nortzuk izan ziren alderdiaren disziplina apurtu zuten bi jeltkideak? Inor ez zegoen seguru. Javier Aresti eta Juan Carlos Garitano aipatzen ziren maizen. Disziplina apurleei buruz gehien entzundako hitzak "ondo eginda!" izan ziren, baita EAJren botuemaileen artean ere.

Alkate berria txalo zaparrada batez hartu zuten herriko plazan bildu zirenek. Sozialistak, ostera. "españolak, zoazte Rociora!" eta txakur zaunkez agurtu zituzten batzuk.

Kale inguruan jendea alai ikusten zen. Txikiteoan ez zegoen beste hizketagairik. Asko eta asko pozik zeuden ez Zubizarretak Alkatezta atera izanagatik, sozialistek atera ez zutelako baino. Bat-



J.M. Loiti zinegotzi sozialistekin plenoaren amaieran.


zokian jasotako eritziek ere hortik zihoazen.

Sozialisten protestek, hala ere, berehalako eragina izan

zuten. Biharamonean, EAJko burukideek Arrasatekoa zentsura-mozioaz edo bestela, baina zuzendu egingo zela

adierazi zuten. Gipuzkoako Foru Aldundia omen zegoen jokoan.

Eritziak



Xabier Zubizarreta (HB): "Bage-nuen esperantzarik Arrasateko herria herri duina delako, eta kalean somatzen genuelako paktismoaren kontrako oposizioa. Datorren legegaldiari begira posible da aurrekoan beste lan egitea, antzerako formulak erabiliz".



Nekane Iglesias (PSOE): "Ez dut uste atera dena aukerarik onena denik, baina gehiengoak hori nahi badu, guk onartu egingo dugu. Datorren legegaldia zaila ikusten dut. Herrian arazo handiak daude. Ez badugu lana denon artean egiten, txarto ibiliko gara".



Jose Mari Loiti (EAJ): "Hau gertatzen da presio handiegia jartzen denean pertsonengan. Nik PSOERI eman diot neure botua, baina gauza bat esango dizut, Alkateak hobeto egin beharko ditu gauzak, bestela ez diot laguntzarik emango".



Pedro Mari Ruiz de Azua (EA): "Euskal Herri mailan egin dena naturaren kontrako ituna izan da eta hemen dago frogatuta. Seguruenik paktuaren porrota instituzioetan igarriko da. Emaitzak lasaitasuna eman dit eta pozik nago. Lasai begiratzen diot datorren legegaldiari".



Aitor Orobengoa (EE): "Ustekabea izan da. Paktu horiek goi mailan ematen dira, baina ez gizarteak ezta jeltkideek ere ez dituzte onartzen. Datorren legegaldia oso problematikoa ikusten dut. Polarizazio handia dago eta zerrendetan ez dago elkarrizketa egiteko jende aproposik".

comercial
san juan


Garibal 12, Tfnoa: 79 13 05

hikein

ENMARKETAZIOA

Zerkaosteta 4, Tfnoa: 79 13 84

San Juanetan zer aldatu beharko litzateke?




Pako Hidalgo
(Udaletzeko langilea)

Oraindik ez dut aurtengo egitaraua ikusi. Dena dela, San Juanak beti daude ondo, eta ez dut uste aldaketa beharrik dagoenik.



Kontxi Etxeberria
(Ikaslea)

San Juanak sosoak dira jendea kanpora ateratzen delako. Jaiegun asko direnez, jendea atsedean hartzera kanpora ateratzen da.



Ana Isabel Santamaria
(Etxekoandrea)

Umeentzako ekintza gehiago jarriko nituzke, baita bertako kantarien jaialdi gehiago ere.



Angel Gallastegi
(Abokatua)

San Juanetan jendea kanpora joaten da, zergatik? Aspergarriak direlako eta beti gauza berdinak jartzen dituztelako. Otsailean jarriko nituzke.

J. URIARTE PAPERDENDA

Jai zoriontsuak izan

MERKATUKO MARKA ONENEK BERMATU ETA ABALTZEN GAITUZTE ZATOK IKUSTERA!

ARRASATE Ferrerías 32. Tfnoa:77 03 80

LIBROS CULOS R ALT TRUS DLER CCI T Y □

CONT ENCIAS ADHESIVAS △ CORRECTO MIQ

CLASIFICACION ○ FICHEROS □ DOSSIERS △ MIO

TIPPEX ○ 3M SCOTCH □ TESA △ PRITT ○ BIC □

STYB △ DIBUJO TECNICO EX □ ESTILOGR

FABRER COMTE

DE XINDEX

DIE REGALO ○ UN □ ESCRITURA

ESCULTURAS: △ MONT BLANC HEAFFER □ PARKER △

WECLE △ TO

ESCOÑAR: △ Idazketa ○ CUADERNOS □ PARDO

TRAFIC △ * Bulegorako gaiak ○ BOLIGRAFOS □ PORT

□ PEGAMEI * Eskolarako gaiak ○ ROTULADORES □ S

□ PENTEL * Marrazketa teknikoa

CONTABILIDAD * Idaztegiko gauzak

CLASIFICACION * Oparigaiak □ UNIBALL □ MATERIAL DE OFFICINA: △ ARCHIVO ○ LIBROS

* Apaingarriak AS ADHESIVAS △ CORRECTORES ○ ETIQUETAS □ ARTICULOS

* Agendak CHEROS □ DOSSIERS △ MIGUEL RIUS ○ ESSELTE □ QUER ALT


* Larrukiak

Joan zara inoiz Atxabalpera?




Sor Maria Luisa Martinez
(Aita Menni Ospitaleko langilea)

Ez, inoiz ez, baina beste monja batzuk joan izan dira. Ni bakarrik obretan ari zirela pasatu nintzen bertatik.



Iker Zugasti
(Ikaslea)

Ostegunean Erreala ikustera joan nintzen. Normalean ez naiz joaten, futbola ez zait gehiegi gustatzen eta.



Santos Landaluze
(Jubilatua)

Behin ere ez, autoz pasatu, baina gehiago ez. Futbola ez zait bat ere gustatzen. Hortaz joateko asmorik ere ez daukat.



Aitziber Ibarrondo
(Ikaslea)


Azkenengo aldiz Erreala ikustera joan nintzen, baina aitarekin ere sarri joan izan naiz. Askok gustatzen zait futbola.



Patterncam

**EREDUAK,
MAKETAK ETA
KONTROL-TRESNERIA
CAD-CAM
BIDEZ**

Musakola auzoa 26,
Kataide Industrialdea. 15. pabiloia. Tfnoa: 77 08 30. Faxa: 77 06 06
ARRASATE



**SAN JUAN JAI
ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUE
ARRASATEKO
UDALBATZAK
ARRASATEAR
GUZTIOI**

- Zuen zerbitzuan:
- Aukea
 - Iturbide Egoitza
 - Udalako Ingurugiro Eskola
 - Drogomenpekotasun zerbitzua
 - KIU
 - Eskola Kontseilua
 - Gazteria Bulegoa
 - Monterron Kultur Etxea
 - Udal Ludoteka
 - Amaia Antzokia

SAN JUAN JAIAK

1991

20, osteguna

Arratsaldeko 7etan, Monterron kultur etxeko hitzaldi aretoan *Arrasate-90* eta Jokin Zaitegi itzulpen laburren IV. *Lehiaketako* sarien argitaralpenaren aurkezpena. AEDk antolatuta.

22, larunbata

Goizeko 10etatik ordubata arte, kiroldegian herri arteko *Judo txapelketa* (sub 17).

Goizeko 10.30etan, Zaldibar pilotalekuan XI. *San Juan ešku pilota txapelketa* (sub 17).

Arratsaldeko 4etan, Zaldibar pilotalekuan *skateerakusketa* eta umeentzako *jolasak*.

Arratsaldeko 4etan, *txirrindulari lasterketa* handia, neska-mutilek parte hartuko dutelarik, benjamin, alebin, eta haur mailatan. Ibilbidea: Udala plaza, Uribe auzoa, Eskola Politeknikoa, Gipuzkoako Foruen Plaza.

Arratsaldeko 4etan, Atxabalpe rugby zelaian Cognac-Arrasate R. T. Jon Juaristi (Kotxero) eta Jose Antonio Marquinaren (Koko) omenez rugby partidua.

Arratsaldeko 5.15etan, Atxabalpe rugby zelaian Orkonpon Baiona-Euskadiko selekzioa Jon Juaristi (Kotxero) eta Jose Antonio Marquinaren (Koko) omenez rugby partidua.


Arratsaldeko 6etan, Musakolako kiroldegian *emakumezkoen*



saskibalo partidua: Centraljet Arrasate-Ondartza Hondarribia.

Gaueko 10.30etan, Amaia antzokian *Mikel Laboaren kantaldia*.

Gaueko 11etan, Herriko Plazan *Gaurko Berri* taldearekin *dantzaldia*.



ILLARRAMENDI

ERLOJUDENDA BITXIDENDA

*Larunbat arratsaldeetan irekita.
Konponketak bertan egiten dira.*

Iturriotz kalea 7 bis, Tfnoa: 77 12 71

23, igandea

Goizeko 10.30etan, Zaldibar pilotalekuan *futbito partiduak*.

Goizeko 11etan, Elgoibarko banda eta Iruñeko gaiteroekin *kalejira*.

Eguerdiko 12etan, Musakolako kiroldegian *gimnasia erritmikoaren erakusketa* Arrasate Gimka Gacelaren eskutik.

Eguerdiko 12.30etan, Monterron parkean *kontzertua* Elgoibarko *bandak* eta Iruñeko *gaiteroek* emana. (eguraldi txarra eginez gero, Amaia antzokian izango da).

Egitaraua:

1. zatia: Elgoibarko banda.
"Segrelles" (P. D.) "Pasodoblea", J. P. Vilaplana.
"Un día en Viena", Obertura F. V. Suppé.
"Las golondrinas Pantomina", J. M. Usandizaga.
2. zatia: Iruñeko gaiteroak-Elgoibarko banda.
"Rigodon", J. Romano.
"Minue Bolerak", Rep. Onrraita.
"Andante con variaciones", J. Romano.
"Jota Popular".

Arratsaldeko 3etan, Herriko Plazan *etxaleroak* eta *bonba japoniarrak*.

Arratsaldeko 4etan, Herriko Plazan *Azkona* taldearen emanaldia.

Arratsaldeko 5.30etan, kuadrilak Musakolan elkartuko dira *makala* edo *txopoa* ekartzeko.

Arratsaldeko 6.30etan, kuadrilek *txopoa* jasoko dute Herriko Plazan. Ondoren San Juan *"txupinazoa"* eta kanpai hotsa.

Arratsaldeko 7.30etan, San Juan Bataiatzailearen parrokiari *Salbe Solemnea*. Lore Gazteak taldeko txistulariek lagundurik.

Arratsaldeko 8etan, Arrasateko *Erraldoi* eta *Kilikien Konpartsaren desfilea*.

Goizeko 10.30etan, Herriko Plazan *San Juan sua*, Lore Gazteak taldearen laguntzaz.

Goizeko 11etan, Nafarroa Etorbidetik irten eta herriko kaleetan zehar, Azkoitiko musika bandarekin *Nagusien Danborrada*, Herriko Plazan bukatuko delarik. SUDCek antolatua.

Ordubatetik aurrera, Herriko Plazan *Inguma* taldearekin *dantzaldia*. Kaleetan zehar *Arrasateko gaiteroen kalejira*.

24, astelehena.

San Juan Eguna

Goizeko 8.15etan, diana *Arrasateko gaiteroekin*.

Goizeko 8.45etan, entzierroko partehartzaileek *Maritxu Kajoiri eskaintza*.

Goizeko 9etan, *entzierroa*, Ferrerriak kaletik irten eta Erdiko Kale eta Iturbidetik pasa ondoren, Roneoko orubean dagoen zezen plazan bukatuko da. Ondoren zaleentzat zezen plazan bigantxak izango dira.

Goizeko 11etan, San Juan Bataiatzailearen parrokiari *Meza Nagusia*.



Goizeko 11etan, Arrasateko *erraldoi* eta *kilikien konpartsaren desfilea*.

Goizeko 11.30etan, Zaldibarren *futbito txapelketaren finala*.
Eguerdiko 12etan, Udaletxean *80 urtetik gorako aitona-amonien omenaldia*.

OKORETEGI

tabernak

jai zoriontsuak opa dizkizu

Eguerdiko ordubatean, Monterron parkean *kontzertua Bilboko Udal Musika Bandaren* eskutik. (eguraldi txarra eginez gero, Amaia antzokian izango da). Egitaraua:

1. zatia.

"Arraunlariak, Pasodoble vasco", M. Amenabar

"Olentzaro Zortziko", Beobide-Mokoroa

"My fair lady" Seleccion, Frederich Loewe

"Cinco minutos con Cole Porter", C. Porter

2. zatia

"El caserio", Preludio del segundo acto. Guridi

"Txanton Piperri", Fantasia. Zapiain

"Igarondo", Cantos Vascos. Torre-Muzkiz

Arratsaldeko 4etan, Herriko Plazan *Gasteiz* antzerki taldeak "Esquinas y farolas" ikuskizuna eskainiko du.

Arratsaldeko 5.30etan, kuadrilen arteko *txirrindulari* lasterketa.

Arratsaldeko 7etan, zezen-plazan *zezenketa jaialdia* Gasteiz eta Bilboko Eskola Taurinoen eskutik.

Arratsaldeko 7etan, *Tximeleta* txarangarekin *kalejira*.

Arratsaldeko 7.30etan, Sebero Altube Plazan *Lizaso* eta *Lopategi bertsolariaketa Imuntzo* eta *Beloki trikitalariak*, AEDK antolatuta.

Gaueko 11etan, Herriko Plazan *Tarrantella* taldearekin *dantzaldia*.

Gaueko 11etan, Sebero Altube Plazan *Imuntzo* eta *Beloki trikitalariak*.

Gaueko 11.30etan, Santa Barbaratik *suzko errubera* izugarriak.

Gaueko 12etan, Herriko Plazan *zezen suzkoa*.

Goizaldeko ordubietatik aurrera, *Hauts gaua*.

25, asteartea

Goizaldeko 7.45etan, kuadrilenzako *txokolatada*.

Goizeko 8.15etan, *diana Arrasateko gaiteroekin*.

Goizeko 8.45etan, entzierroko partehartzaileek *Maritxu Kajoiri eskaintza*.

Goizeko 9etan, *entzierroa* aurreko eguneko ibilbidetik. Ondoren zaleentzat *bigantxak* izango dira.

Goizeko 9.30etan, 1. eta 2. mailako afizionatuentzako *txirrindulari lasterketa*, 54. *San Juan saria*. Ibilbidea: *Arrasate - Aretxabaleta - Eskoriatza - Aretxabaleta - Arrasate - Oñati - Arrasate - Aretxabaleta - Eskoriatza - Aretxabaleta - Arrasate - Oñati - Arrasate - Aretxabaleta - Untzila gaina - Arrasate - Aretxabaleta - Untzila gaina - Arrasate - Oñati - Arrasate (Helmuga)*.



Goizeko 11etan, Arrasateko *Erraldoi* eta *Kilikien Konpartsaren desfilea*.

Goizeko 11etatik ordubatera eta arratsaldeko 3etatik 6etara, Ignacio Zuloaga kalean eta Kondekua zelaian *umeentzako ikuskizuna* (Kars pista, puzgarri erraldoia, zezen mekanikoa...).

Goizeko 11.30etan, *kalejira Bergarako Musika Banda Gaztearen* eskutik.

Eguerdiko ordubatean, Herriko Plazan *Begarako Musika Banda Gaztearen kontzertua* (eguraldi txarra eginez gero, Amaia antzokian izango da).



Aranburu

jostundegia

Maalako Errabala 23, Tfnoa: 79 13 07 ARRASATE

Egitaraua:

"Donostia Marcha Vasca", Peña y Gofii
"Quinta Sinfonía Primer Movimiento", L. Van Beethoven
"The Supreme Diana Ross", Selección. Pi Sheffer
"D. Ireland Bass", M. Sweeney
"Himno a San Juan", Instrume: Miguel Gz. Bastida.

Arratsaldeko 7etan, zezen plazan *jauzkarien txapelketa*.

Arratsaldeko 7etan, herriko kaleetan zehar kalejira *Tximeleta* eta *Txalaparta* txarangen eskutik.

Arratsaldeko 7.30etan, Sebero Altuben *Maixa eta Itziar* trikitilarien emanaldia.

Gaueko 10.30etan, Monterron ondoko zelaian *kale-antzerkia*.
Tarima taldeak "Canal TVT: Lo que hay que decir" obra eskainiko du.

Gaueko 11etatik aurrera, Herriko Plazan *Egan* taldearekin dantzaldia.

Gaueko 12etan, Herriko Plazan *zezen suzkoa*.

26, asteazkena.

Koadrilen eguna

Goizeko 8.15etan, *diana Arrasateko gaiteroekin*.

Goizeko 8.45etan, entzierroko partehartzaileek *Maritxu Kajoiri* eskaintza.

Goizeko 9etan, *entzierroa* aurreko eguneko ibilbidetik. Ondoren zaleentzat *bigantxak* izango dira.

Eguerdiko 11.30etan, *kalejira Arrasateko trikitilari* taldearekin.

Eguerdiko 12etan, Sebero Altube plazan *koadrilen* *konzentrazioa* eta *txalaparta* saioa.

Eguerdiko 12.15etan, *herri txikiteoren* hasiera *Incansables* txarangaren animazioaz.

Eguerdiko ordubietatik 6ak arte, Zaldibarko pilotaleku ondoan *Herri Bazkaria*. Goizeko 10etatik aurrera *marmitakoa*

Ondarruko *arrantzaleek* gertatuko dute. SUDCek antolatua. Tiket salmenta: Plus-Ultra taberna, Monte taberna, Kajoi taberna, Hire liburudenda. Ondoren izugarrizko animazioa *Eguzkirekin*.

Arratsaldeko 4etan, Herriko Plazan *haur antzerkia*. *Kukubiltxo* antzerki taldeak *Jalgi Hadi Dantzara!* antzetzuko du.

Arratsaldeko 6.30etan, Zaldibarko frontoian esku-pilota partidu interesgarriak, Gregorio Uranga "Kirru" enpresario ospetsuaren zuzendaritzapean, ondorengo desafiorekin:
Atarikoak: *Langaran (Txikito de Beneras)*, *Reyes (Txikita de Elosu)*ren aurka.

Estelarra: *Agustin Beitia (Xipri)*, *Agustin Ibarluzea (Txispas)*en aurka.



Arratsaldeko 7etan, *Incansables* txaranga eta *koadrilen kalejira*.
Gaueko 10etatik aurrera, *Berakatz Band* dantzaldia Herriko Plazan.

Gaueko 12etan, Herriko Plazan *Tronpalari* erretzea.

ESTETIKA ZENTRUA

lurrundegia, opariak, jostailuak

Z a r r a o a

Kanpantorpea 4, Tfnoa: 79 12 19

XARAMELA

kafetegia

Loramendi kalea 1, Tfnoa: 79 61 64

AE

A. ELKORO

Maala 29-31,

Tfnoak: 79 18 86 / 79 45 99

- ANTENAK
 - SATELITE TBa
 - ATEZAINAK
 - TB-BIDEO
- ZERBITZU TEKNIKOA**

CANAL+

BANATZAILE OFIZIALA
Bergara, Oñati, Eskoriatza,
Aretxabaleta eta Arrasate

Jose Aranzabal




Sukalde-altzariak

FAGOR 

iturbe

banatzaile ofiziala

Bisita ezazue gure
erakusketa berria
Bañez Dk. 2an,
Tfnoa: 79 18 92, Faxa: 77 14 50

Lehen 


Bideokamarak, TB, Bideoa, HI-FI

SONY



THOMSON *banatzaile ofiziala*


Elektratresnak

FAGOR 

AEG


BOSCH

banatzaile ofiziala



Iturriotz 15, Tfnoa: 79 15 16, Faxa: 77 04 19
ARRASATE

Mikel Laboa kantaldia



Amaia antzokian

**Ekainak 22,
larunbata**

Gaueko 10.30etan

Sarrerak:

- Aldez aurretik: 400 PTA
(ohizko tokietan)
- Takilan: 500 PTA

Antolatzailea:

"Maritxu Kajoi Batzordea"

Laguntzailea:

Jai Batzordea



◀ Urtero bezala, San Juanetako **Umeen Danborrada** zeharo arrakastatsua izan zen. Ehundaka umek, danborrei eraginez ohizko ibilbidea bete zuten. Eguraldiak danborradari ez zion oztoporik jarri eta ikusleak ere ugari izan ziren. Argazkian, ikurriña, Arrasateko ikurriña eta SUDCekoa eraman zuten hiru kantinerak.



Epelde

▲ **Jose Ramon Urrutia** eta **Irune Gaztañaga** Dorletan ezkondu ziren joan den martxoaren 20an. Zorionak!



▲ Ez da lehen aldia eta seguruenik ezta azkena ere. **Haur Dantzari Eguna** eta euria biltzea ez da arraroa. Goizeko partean dantzariak herriko kaleetatik zehar ibili ziren. Arratsalderako, berriz, euri zaparraden eraginez, Kiroldegian aurkitu behar izan zuten babesa.



◀ **Xabier Iriondok** eta **Juan Medinak**, **Taldelan** izeneko bulegoa ireki dute Erguineko hamabigarren zenbakian. Taldelanek, diseinu eta dekorazio munduan, barne-diseinurako proiektuak egitera eta obren zuzendaritzara bideratuko ditu bereahaleginak. Zortea izan dezatela!




**Zuzenean
Sebero Altube
plazatik!**

ENARA
OSAGIRRIAK



**Ondo pasa
San Juanak!**

Maalako Errabala 21
20500 Arrasate
Tfnoa: 79 62 32



Anboto

INBERTSIO ETA ZERBITZUAK
AHOLKULARI INMOBILIARIOAK

Anboto

SAN
JUANETAN,
ARAZOAK
KITTO!

ONDO
PASAU
JAIK

TXiTXiNPE

Berezitazunak:

- Kafea
- Ardoak
- Urdaitegia
- Fruitu lehorrak

Ondo-ondo pasa jaiak!

Arrasate Pasealekua 33, Tfnoa: 79 67 76



Mondrak 25 urte

Dagoeneko 25 urte bete dira, Mondra taldeak kirol taldea izatetik futbol taldea izateko pausua eman zuenetik. Orduetik hona gorabehera handiak izan dira Arrasateko futbol taldearen baitan. Normala denez, hainbeste urteren buruan gertatu direnak ez dira zaletu guztien gustokoak izan.

Aldi onak eta txarrak ere ezagutu ditu Mondrak bere historian. Egun hauek, historiaren unerik politenak gogoratzeko balio izan dute. Ospakizunak dotoreak izan dira. Orain, pasatu direnean, joanak joan daitezela eta etorkizuna poztuko duten kirol emaitzak, lehen bait lehen iritsi daitezela.

Goiztiri Opariak

Maalako Errebala 11.
Tfnua 79 87 43
Arrasate

Mondraren nondik-norakoa

Joan diren egunetan, Mondraren 25. urteurrena ospatu bada ere, jakina da Arrasaten futbolak 25 urte baino gehiago dituela. Zergatik bada, ospakizunak orain? Duela 25 urte, Mondra Kirol Elkarteak Mondra Futbol Elkarteak bihurtu zelako. Arrasateko futbolaren historiari buruz, zerbait jakin nahi duenak, denboran atzerago egin beharko du...

Sorrera Etxaluzen

Jose Letonaren "Pequeña historia del fútbol en Mondragón", liburuak diotaren arabera, 1910. urtean udaldia Arrasaten pasatzen zuten madrildarrek herriko plazan football-ean jokatzeko zuten. Madrildarrena ikusita, bertakoen artean ere football-erako zaletasuna piztu omen zen. 1913. urtean, herriko gazteak bildu eta "Club Deportivo Mondragón" izeneko elkarteak sortu zuten.

Mondra izeneko lehen taldeak, Etxaluzeko futbol-zelaian jokatzeko zuten, gaur eguneko San Andresen. Orain bezala, garai hartan ere norgehiagoka berezianak bergatarren aurka jokatzeko ziren. Behin, Bergarako taldearen aurka berdindu ondoren, ia herri osoak musika-banda eta guzti, Maalako zubian itxaron

omen zion futbortaldeari ongi gietorria emateko. 1916. urtean, greba orokor baten ondorioz, taldea desagertu egin zen.

Maalako futbol-zelaia

Sei urteko etenaren ondoren, 1922an taldea

birsortu zuten, kamiseta gorri eta fraka urdinez jantzita. Urte berean, Maalako futbol-zelaia inauguratu zen. Mondrak orduan "Serie B" zelakoan jokatu zuten, Gipuzkoa, Nafarroa eta Errioxako beste talde batzuk moduan. 1924ean, Arrasaten beste talde bat sortu zuten,

"Mondragón F.C.", baina berehala desagertu zen.

Lau urte beranduago, 1928an, Estatuko liga jokatzeko hasi zen. Mondrak "Segunda categoría ordinaria" izeneko mailan jokatu zuten, hau da, Gipuzkoa mailan. Gorabehera handi barik, 1936. ean gerra iritsi zen eta berarekin batera lehiaketa ofizial guztiak bertan behera gelditu. 1939an, lehiaketei berrekin zitzaien. Urte hartan, Mondrak Errejonaleko txapelketa lortu zuten, baina hurrengo denboraldian, Elgoibarko taldearekin batera, utzi egin zuten lehiaketa.

Talde berria

Aurreko taldea desagertuta, 1942. urtean "Juventud Deportiva de Mondragón" taldea sortu zen. Talde berri honen jantziak, dagoeneko gaur egunekoak ziren: kamiseta more eta zuria, praka beltzekin. Maalako futbol-zelai taldearen birsortpen indartsuaren lekuko bihurtu zen, 1942-43 denboraldian, taldeak Liga eta Gipuzkoako Kopa irabazi bait zituen. Ondorengo bi denboraldietan ere, liga Arrasatera ekarri zen. Zarauz, Elgoibar,



Mondrako taldea, 1922 inguruan, Maalako futbol-zelaian

Eibar, Anaitasuna, Lagun Onak, Plaentxia eta Zarautz taldeak, aldiz, esku hutsik gelditu ziren.

Iturripeko futbol-zelaia

Hain denboraldi onak egin eta gero, zaletuen diru-laguntzei esker, 1945. urtean Iturripeko futbol-zelaia inauguratu zen, San Juan egunez. Ondorengo urteak, arrasatearrentzat onak baino hobeak izan ziren, erregionaleko txapeldun, Gipuzkoako Kopako txapeldun, preferente mailarako igoe-ra... eta 1952. urtean lehen aldiz hirugarren mailara igo zuen.

Lau urte beranduago, arrasatearrak berriro preferente mailan zeuden, hirugarrenetik jaitsi ondoren. Tartean, "Arrasate Club de Futbol" eta "UCEA" taldeak sortu ziren, erregionalean jokatzeko. Urte batzuk erregionalean, eta 1962. urtean arrasatearrek berriro hirugarren mailara igo zuten.

25 urte

1966. urtean, orain 25 urte, "Juventud Deportiva de Mondragon" zena, "Mondragon C. F." taldea bihurtzen da. Hurrengo denboraldian, taldeak hirugarren maila galdu zuen, baita beranduago preferente maila ere. Urte txarrak izan ziren Arrasateko futbolariarentzat, erregionaleko lehen mailan



"Juventud Deportiva de Mondragón" izeneko taldea, Arizmendiarieta eurekin.

eta askotan bigarren mailara jaisteko arriskuaz. Lan handia egin ondoren, Arrasaten futbol giroa berpiztu egin zen. 1975. urtean, Makatzena taldea sortzen da, gazte mailan. Bi urte geroago, Mondra eta Makatzenak bat egiten dute eta preferente mailara igotzea lortu. 1982. urtera arte, Mondra ez zen berriz hirugarren mailara itzuliko, Luis Lopez "Bomba"ren eskutik.

Orduaz gero, Mondrak, dagoeneko Atxabalpen, hirugarren mailari eutsi dio. Azken denboraldia gatzik gabekoa izan da. Aurrendenboraldian parte hartutako lehiaketa guztietan erakutsitako jokoak izugarritzko itxaropenak sorterazi zituen. Denboraldian Mondra zehar, berriz, talde arrunta izan da gehienetan.


Arrasateko harrobia

- Jose Barrena, Erreala.
- Manolo Elosegui, Erreala.
- Mariano Adan de Yarza, Atlético de Madrid.
- Patri Egidazu, Erreala.
- Paco Armengou, Ferrol.
- Eugenio Abarrategi, Ferrol.
- J. Maria Bidaburu, Alaves.
- P. Jose Aranburuzabala, Burgos.
- Angel Arregi, Sevilla - Jaen.
- Juan Arriaran, Indautxu.
- Eugenio Balzategi, Erreala - Alaves.
- Fidel Bereizibar, Erreala.
- Imanol Cenciaga, Torrealevega-Santander.
- Benito Etxebarria, Erreala.
- Jesus Errasti, Alaves - San Fernando.
- J. Maria Guridi, Baracaldo.
- L. Heriz, Erreala - Valladolid.
- Luis Lopez, Malaga.
- Pedro Sologaistoa, Erreala.
- Juan Jose Unbarren, Cordoba - San Fernando.
- Jesus Urbesaigo, Gijon.
- Ramon Urreta, Alaves.
- Jesus Urquia, Alaves.
- Iñaki Zaldúa, Erreala.
- Txomin Arzamendi, Burgos.
- Inaxio Kortabarria, Erreala.
- Xabier Larrauri, Real Madrid.
- Jesus Aranbarri, Erreala - Alaves.
- Jon Sagasta, Erreala - Leonesa.
- Jon Arriaran, Real Union.
- Jose Ignacio Lopez Rekarte, Eibar - Lerida.
- Juan Luis Aranburuzabala, Sanse - Baracaldo - Alaves.


**TORRES
OINETAKOAK**

Maala Errebala 23, Tfnoa: 77 14 34 Arrasate






**Hainbat
preziosotako
menu goxoak**

KAT  **IDE**
J A T E T X E A

**Kataide Poligonoa,
Tfnoa: 79 60 10
ARRASATE**



EGVZKIGRAF

- *Liburuak*
- *Aldizkariak*
- *Katalogoak*
- *Liburuskak*
- *Merkatal inprimakiak*
- *Bulegoko materiala*

Grafikagintza.

Tipografia.

Offset

industrialia

Jesus Moreno

Futbolera-ko bizi zarenean



Inor bada Mondragoen bere ordurik eta ahaleginik onenak futbolari eskaini

dizkionik, Jesus Moreno da hori. Jokalari, entrenatzaile eta epaile. Denetatik egin izan du. Baita tuberiak soldatuz, porteriak egin ere, umeez jolas zezaten. 64 urte ditu eta, jasotako azken eskaintzei bale! esan badie ere, Zaldibarko futbito partidu guztiak ikusi ditu. Futbola maite du.

— Zer etorri zen lehena-go, futbola ala pilota?

— Zaletasun handia zegoen pilotan jokatzeko. Begira, Elman nenbilenean, arratsalde egiten nuen lan, 2.00etatik 10.00etara. Ba, goiz guztia S. Viatorreko frontoian ematen genuen pilotan, ordubiak laurden gutxira arte. Jaisi arinketan etxera, Etxe Txikietan, bazkaldu eta hirugarren adarra jo aurretik lantegian sartzen ginen. Horrela egunero.

— Baina gero futboleant sartu zinen burubelarri.

— Bai. Niretzako futbola izan da kirolik ederrena. Edozein lekutan egiten genuen futboleant. Porteriak kainozuloetan igoal, trapuzko edo paperezko baloiak egin eta aurrera.

Behin Maalako futbolzelaian bergararren kontra jokatu eta gero, Mondrako entrenatzaileak fitxatu nahi ninduen, baina lehendakariak ezetz, parrandazalea nintzela eta pentsatu ere ez. Azkenean, beste erremedioirik ez eta fitxatu egin behar, jokalaria behar zituztelako.

Egia da parrandista samar nintzela, baina, fitxatu nindutenetik aldatu egin nintzen.

— Eta futbolaren gurpilean sartu.

— Hamasei urte eman

nituen futboleant jokatzeko. Urterik gehienak Mondran, baina baita Iruñeko Alegrian eta Errenteriko Touring-en ere, soldadu nintzen bitartean azken hauek. Atezaina nintzen. Hala guztiz ere, hegaleko ezker moduan jokatzea gustatzen zitzaidan eta behin Zarautzen Mondrarenkin postu horretan jokatu nuen, beste inor ez zegoelako.

— Askok bihurtzen zenuen?

— Dexente. Trenez edo kamioiz joaten ginen. *Baranda*, *Zarimutz* eta *Villabañesen* kamioietan. Monjen eskoletako jarleku luzeak alboetan ipini, baita toldoak ere

eta aurrera, kartatan eta, askotan soinu eta guzti. Felix Ugalde etortzen zen gurekin soinuarekin. Sekulako giroa sortzen genuen!

— Zein izan zen urte haietan Mondrak eman zuen jokalaririk onena?

— Askok izan ziren. Beharbada denetatik onena Eli Bolinaga izango zen. Artista hutsa. Petxutik gaisotu zen eta akabo, erretiratu egin behar. Bestela auskalo non amaituko zuen hark.

Kontuan izan, dena dela, orduan beste modu batean jokatzeko zela futboleant. Orduan erdiko atzelaririk ez zegoen eta bost aurrelarire-

kin jokatzeko zen. Golak erraz eta erraz sartzen ziren. Mondragoentzako askotan sartu genituen zazpi eta zortzi gol. Erregetxo adibidez, golak sartzen aspertuta erretiratu egin behar izaten zen. Hiru kornetrik bat gol izaten zen, ia seguru. Hemen izan dugun bururik onena Erregetxo.

— Nola ikusten duzu futbolarik Mondragoentzako egin duen bidea?

— Lehen herrikoek jokatzeko zuten. Orain ezer ez. Horrela ezin da zaletasunik egon. Jokalaria kanpotik ekartzekotan, inguruko gazterik onenak ekarri behar dira lirake. Gora egin nahi dutenak. Frontoietan ere ekar litezke. Baina horretarako joan egin behar haiek ikustera. Alperrik. Hori ere ez da egiten. Pezeteroak ekarri ez da ezer lortzen. Begira, orainxe bertan Zaldibarren bada-go pare bat jokalaria nik berehalaxe ipiniko nituzkeenak Mondran jokatzeko.

— Eta Atxabalpez zer eritzi duzu?

— Aukeran nik nahiago Musakolan egin izan balitz. Garestiagoko zela zioten, baina epe luzera merkeagoa. Mondra ondo badabil, jendea joango da Atxabalpera, baina txarto ibiliz gero, kia. Urrin dago eta bidea estua da. Baina tira, hortxe dago eta ez dago bueltarik. Belarra primerakoa dauka, hori bai.

— Ze gomendio emango zenieke oraingo gazteei?

— Futbolariekiko zaletasun eta ilusio handiagoko izatea. Pentsatu ez arren, futboleant aurrera egiteko asko sufritu behar da eta oraingo gazteek ez dakite sufritzen. Orain edozein zauritxo dela eta, ezin dute jokatu. Guk oster, izkutatu egiten genituen zera horiek jokatu ahal izateko.

— **“Gure sasoiak golak erraz eta erraz sartzen ziren”**


Mondra-Euskadi beteranoak

25 urte eta gero...

Urre-ikutuak zilarrezko ezteietan


Mondra Futbol Taldeak sorreraren 25. urteurrena ospatuz, efemerideari eta urtebetetzeari handitasuna emateko egin duen ahalegina ez dela alperra izan onartu behar da.

Atletico de Madrilekin izandako harremanak, nahiz eta printzipioz Gil y Gilen jarrera aldekoa izan, ez ziren gauzatu; gero, Burgosek jokatzeagatik izugarriko diru piloa eskatu zuen, eta Oviedori ordaindu beharko zitzaiona, bi milioi pezetako dirutza zen. Mondrak, Atxabalpera, eta dohainik, lehen mailako selekzio mozorro-tutako Real Madril ekarri ahal izan du. Cesareo Gabarain jaunaren heriotzak -Chendo, Butragueño eta beste madril-dar batzuen paterra zenarenak- Bernabeukoei, hil ondoko omenaldia eskaintzeko Deba Garaira hurbiltzea eragin die. Atxabalpeko historiarako, efemerideak urre ikutuak izan ditu. Urre ikutu zaharrak ere bai, Euskadiko futbolari beterano onenak Arrasateko beteranoen aurka jokatzeke, Gara-gartzan bildu ziren eta.



Txema Urzelai

Inongo duda barik, historiarako argazkia aterata zuten joan den larunbatean Mondra eta Euskadiko selekzioaren beteranoek partidua jokatu aurretik. Adiskidetasun-partiduei dagokien moduan, jokalaria, entrenatzaile, eta arbitroek ez zuten inolako eragozpenik izan elkarrekin jartzeko.



Larunbateko partidura, seguruen aurtengo denboraldian Atxabalpen jokatuko den politena izan bada ere, ez zen jende gehiegi hurbildu. Partidua Euskadiko selekzioak irabazi zuen, 4 eta 3ko emaitzaz. Ikusleek, ondo baino hobeto pasatu zuten jokoa ikusiz, baita argazkikoak ere turutari eraginez.

Historiarako bi gizon eta bi Jesus, bata bestea agurtzen: **Jesus Aranbarri**, Errealak azken aldiz lehen mailara igotzeko balio zuen gola lortu zuena, Puertollanon Calvo Sotelo taldearen aurka hain zuzen. **Jesus Zamora**, Errealak lehen mailako txapelketa lehen aldiz irabazi zuenean gola lortu zuen gizona, Gijonen Sporting taldearen aurkako partiduan.



IKER

**BAINUGELA ETA
SUKALDE LILURAGARRIAK**

**Udala plaza z/g,
Tfnoa: 79 00 43 ARRASATE**

Euskadiko selekzioa eta Mondrako beteranoek, gogorkeriarik gabeko partidu serioa jokatu zuten. Partiduaren helburua ikuskizuna eskaintzea zenez, talde biak buru-belarri ari izan ziren erasoko jokoan. Ikusleen artean, beteranoak Madril eta Errealekoak baino gehiago ahalegintzen zirela sarritan entzun zen. Argazkian, **Luma, Kote, Gil eta Narbaitza, S.** Antoniori laguntza eskatzen.



Seguruen **Santi Idigoras**en arrastoa galdurik izango zuen batek baino gehiagok. Larunbatean oñatiarra Atxabalpera hurbildu zen. Partiduko bigarren zatian jokatu zuen eta ora:ndik gorputzaldi onean dagoela erakutsi zuen. Bere garaian fama eman zion abiadurarik ez du galdu behintzat.

Partidua bukatu eta gero, iluntzean afari-omenaldia eskaini zitzaion **Luis Lopez "Bomba"**ri. "Bomba"ri, urteetan eta urteetan egindako lanagatik, plaka eder bat oparitu zion Mondrako zuzendaritzak. Argazkian, Luis Bomba, bere emaztea **Juncal**, eta bien artean dagoeneko Errealean jokatzeko duen **Aitor Lopez Rekarte**. Arrasateko izar berria ote?



25 urte eta gero...

Iturripetik Atxabalpera

Hogeitabost. 25 urte bete ditugure Mondrak. Oroimenean galdu zaizkigu Iturripe zaharreko garaiak; eta Iturripe diot, nik behintzat hantxe ikusi nituelako txuri-ubelak lehenengo aldiz. Egun ederrak izan ziren. Nork ez du gogoratzen Palmiraren kontrako partidua, Preferente mailara igotzea lortu genuenean 3-2 irabazi ondoren, herri osoa Iturripen txaranga eta guzti, kantuan, *que al equipo del Mondra no hay quien le ganeee...*

Iturripe zaharreko garaiak! Eta jakina, nola aldatzen diren gauzak! Gaur taldea 3. mailan lasai dabil. Futbol-zelai zoragarria eskuratu du Atxabalpen. Harmailak, ordea, erdi hutsik egon ohi dira igandero. Saltsa, girotxoa somatzen da faltan. Lehenengo batean, Mondraren lekua 3. mailan baino gorago dagoela entzun nuen. Baliteke, baina ez nago ados.

3. maila hori nahikoa iruditzen zait, herriko jokalariekin talde ona osatu eta futbol polita eta golak eskaintzeko. Hortxe bait dago Mondraren erronka: zaletuak berreskuratzen, Atxabalpe goiko puntaraino bete dadin, guztiak kantuan, *que al equipo del Mondra, no hay quien le ganeee...*



Jon Andueza

NEBRASKA KAFETEGIA

Berriro ere zuekin Munar auzoan.
San Juanetan etorri gurekin!

Ez gatzik, ez piperrik

Aurrendenboraldian ateratako emaitzei ez zitzaaien jarraipenik eman

1990-91 denboraldiari hasiera eman zitzaionean, Mondrako jokalaria, zuzendari, entrenatzaile eta jarraitzaileen baitan asmo bakar eta sendoa zegoen: denboraldia amaitu eta gero, taldea Bigarren B mailan uztea.

Asmo hori errealitate bihurtzeko, orduko entrenatzailearen aholkuekin, Mondrako zuzendaritzak kanpotik ekarri zituen jokalaria. Zentzu honetan, Mondrak Errealak hartutako bide beretik jo zuela esan behar, emaitza oso antzerakoekin. Fitxaketa haiek, zaletuen artean ez zuten inolako eztabaidarik sortarazi, taldearen onerako zirela ulertzen bait zen. Dena dela, argi dago nahiago izatearren, zaletuek bertakoen joko ikustea nahiago dutela. Gainera, normalean merkeago ere ateratzen da.

Egindako fitxaketei buruzko eritziak alde batera, ezin da ukatu zuzendaritzaren apostua ausarta izan zela. Aurrendenboraldian arrasatearrei ikusi zitzairen jokuak izugarritzko esperantzak sortarazi zituen Atxabalpeko parrokiaren artean. Izan ere, Mondrak, Bigarren B mailako taldeen aurkako partiduetan joko ona eskaintzeaz



Denboraldia eta urteurrenako ekintzak antolatzen ibili direnak

gain, emaitza onak ere lortu zituen. Aurrendenboraldiko emaitzen ondoren, Atxabalpeko jarlekuetan denboraldiko lehen partidu ofiziala ikusteko bildu ziren zaletuek, garaipenean besterik ez zuten pentsatzen. Lehen partidua makina baten begiak zabaldu zituen, Mondrak joko kontrolatu bai, baina gol aukerarik sortu ez. Egun txarra besterik ez zela izan pentsatu zutenak ere asko izan ziren. Ondorengo partiduek, hasieran zaletuek ikaragarritzko taldetzat zutena talde arrunta zela azaldu zuten.

Txapelketa aurrera eta taldea atzera. Entrenatzaileari joko eta emaitzak hobetzeko epea jarri zitzaion. Jarritako hesiak gainditu ez zituenez, kargutik kanpo utzi zuten Pello Bengoetxea ondarrutarra. Haren ordeaz, Eizagirre. Entrenatzaile berriak bertako mutilak jarri zituen jokoan. Apurka-apurka taldearen lana hobetu zen. Dagoeneko, denboraldi hasieran ezarritako helburuak lortu ezinak ziren, baina behintzat taldeak erridikulorik ez zuten egiten.

Denboraldia amaitu da. Taldea sailkapen taulako er-

dikaldean. Hasieratik harrobiko jokalariekin jokatu izan balitz, behin eta berriz aipatutako helburuak lortuko al ziratekeen? Jokalari batzuk, baietz uste dute. Dena dela, denboraldia kanpotik ikusi duen honi ez zituela beteko iruditzen zaio, Mondrak erasora jokatu duenean inoiz ez bait du arrisku gehiegirik erakutsi.

Azkenean Mondraren 25. urteurrenako denboraldiak, ospakizun dotoreak alde batera, gatzik eta piperrik gabeko tortilak egiten duena egin du: bete baina gustorik eman barik.

GOROSTI
Jatetxea

Arimazuri plaza,
Tfnoa: 77 06 07
ARRASATE

KAJOI TABERNA

ERDIKO KALE 22, ARRASATE

BEATRIZ

boltsa eta zapata denda

*San Juan jai alaiak
arrasatear guztiei.*

Erdiko kale 11, Tfnoa: 79 14 33 Arrasate



**ARRASATE
KIROLAK**

Txapeldunaren konfidantza

**“Zalantza barik, zure aukerarik onena
moda eta kirol ekipamenduan”**



**Zuk ere bisita gaitzazu
eta emaguzu zure konfidantza**

San Juan jai zoriontsuak!

Kontzeziño 8, Tfnoak: 79 46 12 eta 77 12 47. ARRASATE

Txiki-txikitatik futbolaren trenean sartuta, Luis Mari Lopez Rekarte geltoki askotan jaitsi izan da. Luis Mari, orain arteko bidaia luzeenari ekin zion duela urte gutxi, Errealetik Bartzelonara daraman tren hartu bait zuen. Ahal izanez gero, 29 urterekin gustora hartuko luke bueltarako txartela.

— Bartzelonara iritsi aurretik non jokatu zenuen?

— Mutikotan Almenen jokatu nuen. Gero, Aretxabaletara pasatu nintzen, handik Alaves taldera, gero Errealera eta azkenik Bartzelonak fitxatu ninduen.

— Talde horiek nola gogoratzen dituzu?

— Denboran eta oroimean urruti samar gelditzen zaizkit. Dena dela, lehenbiziko urteetan, bai futbolean eta baita beste edozein lanean ere, gauzak oso politak izaten dira eta gerora gustora gogoratzekoak dira. Lehenbiziko urte horietan, batez ere ondo pasatzeagatik jokatzenda, futbolaren mundua nolakoa den konturatu barik. Hasieran hobeto pasatzen da, bai. Aurrekoarekin, ez nuen esan nahi futbolaren mundua zerbait ustela denik. Desilusiok? Niretzat, iritsi naizen tokira iristea oso inportantea da, egunez egun ereindako haziak, bere fruitua eman duela esan nahi duelako.

— Zeintzuk dira zure jokorekin ezaugarri nabariak?

— Futbolista moduan ditudan baliabiderik onenak, esango nuke abiadura eta futbol-zelaian egoten jakitea direla.

— Zer nahiago, asko kobratu eta gutxi jokatu ala asko jokatu eta gutxi kobratu?

— Gaur egun, aipatu duzun lehen kasuan nagoela

Luis Mari Lopez Rekarte

Itzultzeko desiatzen



uste dut. Egia esan, biak probatu ditut. Horri buruz eritzi garbia daukat: Errealean pasatu nuen bezain ondo ez dut beste inon pasatu. Oraingo egoera besterik da, ez hain atsegina. Edozein futbol taldetan ona da lehiakidetasuna egotea, baina bakarrik lehiakidetasun hori sanoa denean, ez gauza arraroak daudenean.

— Dakizuna jakinda, orain Errealean bazina eta Bartzelona zure bila etorriko balitz...

— Egindakoaz ez naiz damutuko, Bartzelonak fitxatu ninduen banekien eta ondo edo gaizki atera zitekeela. Zorte txarra izan dut, gauzak nik nahi nituen bezala ez zaizkidalako atera, bai-

na hala ere, ez naiz damutzen.

— Errealera itzultzea gustatuko litzazuke?

— Errealean sartu den entrenatzaileak gauza asko erakutsi dizkit eta berarekin oso gustora ibili nintzen. Lan-harremana bikaina izan zen, beraz, berriro berarekin lana egitea gustatuko litzaidakeela esango nuke.

— Futbolak eskaini dizun unerik onena?

— Errealarekin Zaragozan Kopa irabaztea.

— Eta txarra?

— Gauza txarrak lehenbailehen ahazteko ahaleginak egiten ditut... baina zerbait aipatzekotan Bartzelonako

egonaldia aipatuko nuke. Hasieran dena ondo zihoan, baina txorkatila izorratu nuenetik... ilusio handia nuen eta lesionatuta egon arren, jokatu egiten nuen. Hanka sartu nuen. Gero lana normal egin dut baina nire zerbitzuez ez dira baliatu.

— Euskadiko selekzioan jokatu izan duzu, zer erizten diozu?

— Euskal selekzioari falta zaion gauza bakarra jarrera da. Gauza polita da, baina partidutik partidura tarte handiegia daude. Seriotasunez hartuz gero, selekzio ona izango litzateke. Beldurra digutela konturatzeko, lehen mailako ekipotan dauden jokalariek euskaldunei begiratzea nahiko da.

— Bartzelonako gainontzeko jokalariek euskaldunekin zein harreman daukazu?

— Harremanak onak dira, baina hemen egin daitekeen bizimoduak ez du zerikusirik Donostian egin daitekeena-rekin. Bakoitza punta batean bizi gara, entrenamendua bukatu eta gero bakoitza bere etxera joaten gara. Lanetik kanpo ez gara maizegi ikusten. Egun normala nolakoa den? Goizean jaiki, gosalduta, entrenatu eta aparteko zereginik ez badaukat, etxean bazkaltzen dut. Sukaldean ondo moldatzen naiz, sukaldaritza beti gustatu zait. Arratsaldean nire gustoko gauzak egiten pasatzen dut.

— Eta Arrasate nola ikusten duzu hortik?

— Ahal dudan guztietan Arrasaten nago, Donostian nengoenean baino gehiagotan. Batez ere giroa, lagunak eta familia sentitzen ditut faltan. San Juanetan egotea nahiko nuke, baina horretarako Atletico Madrilek Kopatik kanpo utzi behar gaitu... Arrasatearrek behintzat ondo pasa dezatela.


“Lana ondo egin dut, baina ez dira nire zerbitzuez baliatu”

DUO DISEÑO



- **OBRAK**
- **BARRUAK**
- **BULEGO-ALTZARIAK**
- **PROIEKTUAK**
- **OSAGARRIAK**

**Iturriotz 21, Tfnoa: 79 28 86
ARRASATE**



ALTZARIAK

Araba Ibilbidea 20,

Tfnoa - Fax: 79 23 51

ARETXABALETA



Andra Mari Auzunea 1,

Tfnoa: 79 10 97

ARETXABALETA

LASTER...

Mitarte kalea 3an,

SUKALDE-

ALTZARIAK



Banatzaile ofiziala



Tfnoak: 79 13 55 eta 79 27 27, Arrasate



MEKANIZAZIOAK

- ***Doitasunezko mekanizazioak plano eta langileen arabera***
- ***Fresatzeko makinak***
- ***Zenbakizko kontrola***
- ***Mekanizazio-zentruak***
- ***Tornuak***
- ***Artezko makinak, etab.***

Zaldispe kalea 10, ARRASATE

Tfnoak: 79 67 80 / 79 05 61

Posta kutxa 95. Telefaxa: 79 80 97

Goian Industrialdea. 24 Apartatua

Tfnoa: 945; 45 54 28 / 45 54 54 / 45 54 53

Telefaxa: 45 54 74, 01170 LEGUTIO

Elkartasunezko jai-giroan!



Alaitasuna, poza, jolasa eta ilusioak gainezka dauzkagun une honetan, Herriarengandik hurbil egon nahi dugu. Herriaren zati bat sentitzen garelako. Horregatik, festa-giroan elkarturik, egun alaiak gozateko aukera, guztiona izan dadila.

**Euskadiko
Kutxa**

J.J. txokolategia

txokolate eta izozki goxoak

Bañez Dk. , Tfnoa: 79 74 12

Avenida taberna

San Juan jai zoriontsuak!

Bañez Dk. 11,

BRANKA

taberna_k

jai zoriontsuak opa dizkizkue

Zure zapatila berriak
LORAMENDIn.



San Andres auzoan...

LORAMENDI



KIROLAK

LOKI EDER
KAFETEGIA
Bañez Dk. 11,
ARRASATE

ESKERRIK ASKO ETORTZEAGATIK

Uribarri Etorb.
ARRASATE

KAFETEGIA
GOXOA



• *kafetegia* •

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67



AED Elkarteak euskara zoriontsua
opa dizue arrasatear guztioi!


I
R
TABERNA
T
I

San Juanetako
girorik onena
gure tabernan

Ferrerias kalea. Tfnoa: 79 71 80, Arrasate

Zer nahiago?

Luis Arregi, futbolista ohia



- Oporrak, etxean ala kanpoan? Orain ohitura kanpoan da eta... Lehen Txasetan egon izanda gaude gu oporretan.
- Futboleant, indarra ala teknika? Biak. Ezin bat kendu.
- Erronomia ala kontzertua? Gaztetan erronomia. Zenbat eta zaharrago, kontzertua.
- Atxabalpe ala Udalpe? Biak. Bakoitza bere denboran.
- Atezainekin, palomita ala despejea? Despejea. Praktikora joan behar da.
- Tiranteak ala gerrikoa? Tiranteak.
- Liga ala Kopa? Liga.
- Udalaiz ala Anboto? Udalaiz. Ez zait gustatzen Anbotoko arriskua.
- Tangoa ala balsa? Balsa, baina tangoa ahaztu barik.
- Aldrich ala Loinaz? Gaur Aldrich.
- Txikiteoa ala pasiada? Bietara egiten dut, baina txikiteoa astean behin, lagun guztiak elkartzeko.
- Lehengo futbola ala oraingoa? Lehengo erremintekin ezin gaur futboleant egin.
- Zuzak ala arbigarak? Arbigarak.
- Ekipo-lana ala bakar-lana? Bakartasuneant gauza gutxi egiten da.
- Museant egiteko, Iturbide ala Monte? Udalpe.
- Egunkaria ala liburuak? Egunkaria derrigor, liburuak baztertu barik.
- San Frantzisko ala Parrokia? Parrokia.
- Aurrelariak ala atzelariak? Atzelariak.
- Tito Irazusta ala Jose Maria Garcia? Tito.

Igarkizunak

Gizakia

1 Bi zulokoa da gure tximinia, ixten badugu itoko dugu ia, arnasa hartu ezinik larri gure bizia.

2. Harriak bezain gogorak zakurrentzat gozoak, beraiek gabe ezin inork saltoka egin.

3. Aita da baina ez gurea, ona da eta beti agurea.


4. Biak ahizpak dira: bata nire izeba bestea inola ere ez. Nor ote, ba?

5. Lau hankatan goizeant bi hankatan eguerdiant hiru hankatan gaueant.

6. Bi ama eta bi alaba: ondo zenbatzen baduzu ez dira lau, hiru baizik. Badakizu, esan gabe nik?

7. Zuk baduzu nik ere bai, mundu guztiak du nola bestela ezagutu?

Soluzioak:
1 + Sudurra, 2 = Hezurrak, 3 = Aitona,
4 = Ama, 5 = Gizona, 6 = Armona, ama eta
alaba, 7 = Izena.



Zerkaosteta 5, Tfnoa: 79 66 87 Arrasate

**Beti bezala,
KALITATEA eta OPARIAK.**

**Zure karreteant errebelatze-
rakoant eraman itzazu ka-
rrete bat, albu bat eta
anpliazioa.**

CONSTRUCCIONES BOISA, S.A

CONSTRUCCIONES BOISA, S.A.k,
Eskoriatzako II-2 Sektoreko etxebizitza, garaje
eta merkatal etxabeen sustapenaren berri emateaz
gain, bidebatez **ARRASATEAR** guziei
HERRIKO jai zoriontsuak opa dizkizue.


Foruen Plazan gaude, 1-etxabea, San Andres

Tfnoak: 79 21 61 eta 79 64 32

Arrasate.

Zer nahiago?

Fernando Aguriondo, Kiroldegikoa



- Di Estefano ala Maradona? Di Estefano, oso konpletoa zelako.
- Real ala Athletic? Erreala.
- Jokalari arrotzak ala harrobitik ateratakoak? Harrobitik ateratakoak.
- Lotoa ala kinielak? Kinielak, behintzat logika bat dauka. Bestea, zorte hutsa da.
- Marino ala Indurain? Marino.
- Lewis ala Johnson? Lewis.
- Hondartza ala mendia? Hondartza.
- San Juanak ala Santamasak? San Juanak.
- Atxabalpe ala Iturripe? Atxabalpe, oso dotorea da eta. Dena den, Iturripe Gipuzkoako zelai onenatarikoa da.
- Futbola ala futbitoa? Futbola.
- Dutxa ala bainua? Bainua, igerilaria ere banaiz eta.
- Txandala ala bakeroak? Bakeroak.
- Bizarra mozteko, makina ala aitzurra? Aitzurraz betik, bi egunez behin edo mozten dut.
- Telefonoa ala eskutitza? Telefonoa.
- Linimentoaren usaina ala Baron Dandyrena? Linimentoaren usaina; Baron Dandyrena ez zait gustatzen.
- Joko Olinpikoak ala Munduko Futbol Txapelketa? Joko Olinpikoak, ikusgarriagoak dira.
- Pedrusco ala San Andres? Pedrusco, izen alaia da.
- Kirolgile ala kirolzale? Kirolgile. Orain tenisean nagofederatut.
- Goleatzailea ala joko sortzailea? Hasieran goleatzailea, gero joko sortzailea, eta azkenean atzelaria.
- Euskadiko selekzioa ala hori-gorria? Euskadikoa.

Igarkizunak

Gizakia

1. Jantzi zaharrak ibilera baldarrak; barre eragilea dut lanbidea zoriontsu naiz izanez gero ume guztien adiskidea.
2. Ez da ugazaba ezta aberatsa, ez da zalduna ezta ezaguna, halere beti ibiltzen erregea baino lehen.
3. Nor da besteen haginekin jaten duena bikain?
4. Zer ote da, zer urdailean kosk egiten duena? Zuek ez baduzue hiltzen berak egingo du zuena!
5. Bestearena hartu eta bihurtzen du bere, lekukorik gabe lanean azkarra da eta trebe.
6. Ez nauzu inoiz harrapatuko nahiz eta ibili nire atzetik, ihes egin nahi badidazu ere ez naiz kenduko zure ondotik.
7. Bi mendien arteko tiro zaratatsua, sudurra ixteko moduko tiro usaintsua

Soluzioak:
 1 = Pailaia, 2 = Txoferra, 3 =
 Haginlaria, 4 = Gosea, 5 = Lapurra, 6 =
 Iztala, 7 = Puzkarra.



ERAÑA AHOLKULARITZA

OROTARAKO ASEGURUAK

Kontzezino kalea 4, behea Tfnoa: 79 83 95 ARRASATE

Galdos arte-aretoa_k

*San Juan jai zoriontsuak
opa dizkizu*

Iturriotz 24



Jai goxo eta zoriontsuak

Gomei, S.A.

MARRUSKADURAZKO PRENTSAK
PRENTSA ESZENTRIKOAK
PRENTSA HIDRAULIKOAK
TORLOJODUN ERAUNSPENEZKO PRENTSA
TOTXOTARAKO ZIZAIK
DEFORMAZIO MAKINA BEREZIAK

Nafarroa Etorbidea 31, Tfnoa: 79 55 00 Telefaxa: 79 03 97
ARRASATE



Sokoa tabernan izango duzu San Juanetan girorik onena



Debako futbol-zelai zaharrean. 1943

Gerraosteko garaia zen. Artean ez zegoen ligarik gaur bezala. Bi talde zeuden: kostaldekoa eta hiriburukoa. Mondrak kostaldekoekin jokatzeko zuen, Bergara, Eibar, Deba, Elgoibar eta horiekin batera. Normalean, talde bakoitzeko txapel-dunek finala jokatzeko zuten, Donostian edo Bergaran.

Mondrak oso talde ona zeukan. Gerraurreko jokalariek beterranoek eta gazteek osatzen zuten kostaldekoen artean punta-puntan zebilen taldea. Beteranoen artean, gerra gorriekin egin zutenak soldadutza egitera behartu zituzten. Hori izan zen Benito Etxebarria, Ramon Aranbarri eta Roman Fernandezek kasua.

Denboraldi amaieran sari berezia izaten zuten. Santiago egunean denak kamioian sartu eta Landara eramaten zituzten, eguna pasatzera.


1943ko urtarrilaren 17an Deban

jokatu zuten, Debaren kontra, hondartzaren alboan zegoen futbol-zelai zaharrean. 3 eta 1 galdu zuten gure mutilek.

Zutik, ezkerretik hasita, Eugenio Baltzategi *Erregetxo*, Benito Etxebarria (†), Joxe Errasti, Manolo Amozarrain, Pedro Sologaitoa *Laso* eta Kastor Uribe.

Belauniko ezkerretik, Benjamin Pereira (†), Ramon Heriz, Carlos Mercader *Txantxote* (†), Jesus Azkargorta, Jose Mari Aranbarri eta Ramon Aranbarri *Baranda*.

FOTO
imagen
ARGAZKI



Zerkaosteta 5, Tfnoa: 79 66 87 Arrasate

**Beti bezala,
KALITATEA eta OPARIAK.**

**Zure karretea errebelatze-
rakoan eraman itzazu ka-
rrete bat, albur bat eta
anpliazioa.**

EYA

elektratresnak

etxeko lanak
egin ditzala makinak
festatan eta beti

Iturriotz 21, Tfnoa: 79 03 84
Erdiko kale 27, Tfnoa: 79 13 79

Itsaso taberna


gure berezitasunak, txuletak eta txanpinoiak

Ondo pasatu
San Juan jaiak!

Mendi taberna

**Mendi da
zure etxea**

Maalako Errabala 4, Tfnoa: 79 20 54



Deba Garaia

Inmueble eta finantza agentzia

Artekaria: Jesus M^a Markaide

San Juan jai alaitsuak izan!

Iturriotz 23 etxabea,
Tfnoa: 77 13 02 eta 77 14 27
Arrasate

ITURRIOTZ taberna

*Iturriotz
San Juanetan
behintzat
ez izan bihotzean
hotz*



LANTOKI

- **Ugertezinak**
- **Metalak**
- **Soldaketak**
- **Metal eraikuntzak**
- **Muntaiak**

**Araba Etorb. 15,
Tfnoa: 79 17 70, Faxe: 79 27 66
Arrasate**



UCEAko taldea Iturripen. 1963

Unión Cerrajerak UCEA (Unión Cerrejera Escuela de Aprendices) futbol taldea sortu zuen, Aprendices eskolako ikasleekin. Gaspar Ezkurraren lehendakaritzapean, hasieran Zaldispen jokatzeko zuten, Cerrajerak zituen terrenoetan.

Hasieran jokalaria gehienak Aprendiceskoak baziren ere, denboraz beste

leku batzuetako mutilak ere joan ziren sartzen. Argazki honetan agertzen diren gehienak adibidez, ez ziren Aprendiceskoak. Ordurako gainera, Eskola Profesionala errealitate indartsua zen, futbol-zelai eta guzti. Sasoi hartan UCEAk Iturripen jokatzen zituen partiduak. Eurak ziren Mondrako gazteak.

UCEAk oso talde onak izan zituen hasieran, Olazabal, Errasti eta halakoekin. Gaurko argazkikoek ere oso talde sendoa osatu zuten. Hemendik

bi Errealera joango ziren (Sagasta eta Aranbarri) eta beste bat (Larrauri) Real Madrilerara.

Zutik ezkerretik, **Rodero, Patri Etxabe, Antonio Santiago, Emilio Inda, Jose Luis Idigoras eta Angel Ramos.**

Belauniko, **Jose Ignacio Uribe, Jon Sagasta, Jesus Aranbarri, Javier Larrauri eta Pedro Arizabaleta.**

Beti goi mailan izili ziren. 64ean, ia talde berarekin, Gipuzkoako txapeldun atera ziren.



Laso-Arregi argazki denda

Alfonso X Jakintsua 3, Tfnoa: 79 12 75 Arrasate

Jai zoriontsuak opatzeaz gain, ordubetea errebelatzen eta erroilua oparitzen (edo 20ko deskontua) segitzen dugula gogora erazi nahi dizuegu.


K
L
A
S



Ondo
pasatu
jaiak!

• GAZTE MODA • Iturriotz 23, Tfnoa: 77 02 76

M
E
C
A



R
A
P
I
D

- Baita abiadura ikastaroak ere, 350 pultsazio/ minutuko lortu arte.
- Aldez aurretik geratutako orduetan.

TAKIGRAFIA

- Master V.D. Sistema, 80 eta 120 P.M.

Prestatu zure oposaketak

Prestatuta egotea ezinbestekoa da zure lana behar bezala egiteko.

Gure ikusentzunezko sistema programatu eta mikroprozesatuak ikasketa zuzena eta abiadura handiko idazketa bermatzen du, guzti hori INON

BAINO AZKARRAGO.
EZ UTZI GEROKO


Irakaskuntza serioa eta
garantizatua

IKUSENTZUNEZKO MEKANOGRAFIA

- 28 orduetan, egunean klase bat, 200 pultsazio/ minutuko.
- Idazkera hatzamar guztiekin.
- Teklatura begiratu gabe.

MECA RAPID, Zentru espezializatua

Otalora Lizentziatua 3, 1.C, Tfnoa: 79 68 53
Arrasate



MIKEL LASA

ASEGURU ARTEKARIA

Zure esanetara gauzkazu! San Juan Jai alaitsuak izan!

Maalako Errabala 33, Etxabea. Tfnoa: 70 69 00. Faxa: 796900
ARRASATE

ZERKAOSTETA

KALEAN

BENGOA

LURRINDEGIA



**enpresa
bazkariak
eta famili bilerak**

**Gasa
Berogailuak**

CLEGAS

Elkano 40, Tfnoa: 77 00 77 Arrasate



**ARRASATE
KRISTALDEGIA**

Orotariko kristaldegia

- Orotariko kristaldegia eta kristalezko apaingarriak.
- Dendetan ere ezarketa eta beharrezko obrak.
- Egurats babestallea, zarata ostopatzallea eta segurtasuna eskaintzen duen kristaldegia.
- Leihoetako kristaldegi berezia eta kutsu bereziko grabaketak.
- Sarrera, egongela eta komunetarako kristala daramaten altzarien ezarketa.
- Etxeetan kristaldegi ezarketa.
- Beharren ikustailetasuna eta aurrekontuak inongo konpromezu gabe.
- Erradiadore babeslea.
- Atariko atetako kristaldegi bereizlea.
- Kristal-ezarketa eta lanketa etxe barneko era guztietako ateentzat.
- Erakusleihoetako altzarigintza.
- Bainurako apalak, egongelarako, etabar.
- Era guztietako plastikoa: balkoi, lantokirako, etabar.

Erakusgela eta lantokia: Nafarroa Etorb. 25 etxabea (Anbulategiaren ondoan)
Tfnoa: 77 07 74, Faxe: 77 07 74 Arrasate

LARUNBAT GOIZETAN IREKITA

U D A L A I T Z

T A B E R N A

DASTA ITZAZU GURE TXANPINOI GOXOAK

ETA JAI ZORIONTSUAK IZAN



Berazubiko futbol-zelaiain, Tolosan. 1970

1 969-70 denboraldia ez zen Mondrak egin zuen onena izan. Aurreko urtean Jose Martinez de Ubagok, nekatuta eta etsita, utzi egin zuen lehendakaritza Francisco Marteatxeren eskuetan.

Primera Regional mailan zebilen Mondra sasoi hartan. Jesus Moreno

entrenatzaile zela, ahaleginak egin zituzten kategoriaz igotzeko. Horregatik fitxaje berriak egin zituzten: Gonzalez, Ramos eta Txomin Iturbe Aretxabaletako UDAtik ekarri zituzten eta Cid Legazpiko Illintxatik.

Maiatzean, Tolosaren aurka jokatzera tokatu zitzaizen, Berazubin. Partiduari ekin aurretik Yolanda Vargas tolosarrarekin (argazkian

Aguriondo eta Ramosen artean) atera zuten argazkia, Espainiako igeriketa txapelduna izan bait zen, 100 m. sörbalda estiloan.

Zutik ezkerretik, Txomin Iturbe, Cid, Pello Unzueta, Fernando Aguriondo, Angel Ramos eta Uribesalgo.

Belauniko, ezkerretik, Gonzalez, Jose Ignacio Isasmendi, Jabier Biain, San Vicente eta Jabier Mondragon.




Liburu eta paper-denda
Bidaietarako eta narruzko gaiak
 Iturriotz 4, Tfnoa: 79 14 84 Arrasate



ARIES

*Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra*

Bare-bare daukazu barrua eta izugarritzko lasaitasuna izango duzu. Moteltzeko arriskuan ere bazaude eta piparmin pixka bat jarri beharko zenioke eguneroko eginbeharrari. Norbaitek sekulako arreta jarri du zuregan eta ohartu ere ez zara egin.



LEO

*Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra*


Maitasuna eta filosofia sendotzeko egoera onean zaude Leo; horretan iharduteko energiak ere soberan daukazu gainera. Bidaiairean bat egin behar izatea suerta liteke zure lagunarekin. Hala ez bada, bertan zure biziko amodioarekin topo egiteko aukera ugari izango duzu.



SAGITARIUS

*Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era*


Estresatuta zabilta eta egun batzuetako atsedena hartzea komeni zaizu. Ondo dakizu egoera hau baretzeko zer den aproposena zuretzat eta ez zaitetz duda mudatan egon; hartu maleta eta zoaz benetan gustoko duzun toki horretara.



TAURUS

*Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra*

Besteen arazoei gehiegizko garrantzia emango diezu eta zeureak zertxobait ahaztuko. Urduri zabilta eta egoera honek bapo jan arazten dizu. Jatorduak zaindu behar izango zara denbora gutxi barru ondorioekin ez arduratzeko. Eztarria zaindu.



VIRGO

*Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra*

Egoera eta ekintza guztien zergatia bilatu nahian ibiliko zara etengabe. Jarrera horrekin ez zara ezertara iritsiko gupril zoroetan murgilduta ibiliko zarela. Urduri zabilta eta gaisotzeko premia daukazu egun batzuk ohean emateko. Ez da inhesbiderik aproposena.



CAPRICORN

*Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra*


Nahiko desorekatuta izango dituzu energiak. Takian potian aldatuko da zure umorea. Oreak pixka bat lortu beharko zenuke inorekin ez haserretzekotan. Ariketa fisikoa egitea komeniko litzaizuke indar oldarkor hori baretzeko. Zure esku dago.



GEMINI

*Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra*

Burua argi duzu, Gemini baina, teoriatan baino ez zara ibiltzen. Teoria horiek praktikan jarri beharko zenituzke, ideia horiek bere hutsean ez gelditzeko. Inguru motel samar duzu eta zure parte hartzea behar beharrezkoa izango da.



LIBRA

*Irailaren 24etik
Urriaren 23ra*

Firin-farin ari zara azkenaldi honetan eta ahaztu samar daukazu etxekoak. Zurekin hitz egiteko premia larrian dago norbait eta denbora pixka bat eskaini beharko zenioke. Pozik zabilta zeuk nahi dituzun guztiak egiten. Ez ahaztu ez zarela bakarrik bizi.



AQUARIUS

*Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra*

Lagunartean bizi izateko izugarritzko gogoia izango duzu, eta hala izango da. Baliteke zure biziko azukre koxkorrekin topo egitea hauetakoren batean. Adi egon zaitetz hor izango bait da. Harremanetarako jator egongo zara eta ez duzu, ez, lagunik faltako.



CANCER

*Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra*


Ilargia etxean daukazu. Zure ahalmen, hala intuizioa nola emozioa garatzeko une egokia da oraingoa, Cancer. Sormena eskatzen duten lanetan hartu beharko zenuke parte hobeto sentitzeko. Urdaila ez daukazu oso egoera onean, jarriozu arreta pixka bat.



SCORPIO

*Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra*

Burubelarrari arituko zara lan berri horretan eta gainontzeko beharrak ahaztu samar edukiko. Zeure buruari ez diozu mereri duen arreta eskaintzen eta beheak jota aurkituko zara jarrera aldatu ezean. Saia zaitetz tokian tokiko beharrei erantzuten.




PISCIS

*Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra*

Ezusteke eskaintzaren bat egingo dizute ukorik egin beharko ez zeniokeena. Baliteke aurrerabidea izatea bide horretatik joanez gero. Lanerako gogo bizia izango duzu, baita ere alperkerian egoteko. Denerako beta izango duzu.

Abantailez betetako leihoak



PVC EDIL

Poliuretano. Bayer


PERFIL THERMIK

Sistemak.

Kalitatea



- PVC eta poliuretanozko leihoak
- Maila goreneko teknologia europarra
- PUR profil-mazizoak
- Leiho isolatzaileak (hotza, zarata, hezetasuna), etab.
- Kalitate/prezio erlaziorik onena
- Leihorik bikainenak



Lantegi eta erakustokiak:

Zentrala: Kataide industrialdea 4. Tfnoak: 77 01 57 eta 77 03 21

Ordezkaritza: Labegaraieta z/g, Tfnoa: 76 53 69

KAJOI TABERNA

ERDIKO KALE 22, ARRASATE

BEATRIZ

boltsa eta zapata denda

*San Juan jai alaiak
arrasatear guztiei.*

Erdiko kale 11, Tfnoa: 79 14 33 Arrasate

1960tik, gaur zuri bitxi eta erlojugintzan katalogorik zabalena eskaintzeko



bitxiategia

Zubiaga
Maalako Errabala 5,
20.500 Arrasate
Tfnoa: 79 19 25
Faxa: 79 14 89



Etxeko ekipamendu osoa.

a,eme..
interiores

Garibai 9, Tfnoa: 79 15 03 ARRASATE